



RESOLUCIÓN DE LA VICECONSEJERA DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS, DE 22 DE OCTUBRE 2018, POR LA QUE SE REGULAN LOS PROCEDIMIENTOS DE CESE Y RENUNCIA VINCULADOS A LA APLICACIÓN DEL CUMPLIMIENTO DEL PERIODO DE MÁXIMA PERMANENCIA.

El artículo 70.2 f) de la Ley de Policía del País Vasco prevé el cese en la adscripción a un puesto de trabajo por el cumplimiento del periodo de máxima permanencia contemplado en el artículo 41.2 g) del mismo cuerpo legal como una de las especificaciones de las relaciones de los puestos de trabajo, fundada en las especiales características de las funciones a desarrollar.

El Decreto 388/1998, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo de los Cuerpos de Policía del País Vasco contempla en sus artículos 15, 16 y 24, así como en la Disposición Adicional Séptima, las consecuencias del cese en la adscripción a un puesto de trabajo por cumplimiento del plazo de máxima permanencia.

La determinación y regulación de los puestos de trabajo sujetos a periodos de máxima permanencia aparece reflejada en las correspondientes Órdenes de puestos de trabajo.

Si bien en un principio se estableció un plazo concreto para los puestos de Brigada Móvil, posteriormente tal plazo se relegó al ligar el cese no a su término sino a la no superación de unas pruebas. No obstante, con Orden de la Consejera de Seguridad de fecha 12 de marzo de 2015, se vuelve a contemplar una nueva regulación de la máxima permanencia para los puestos y se expresa el inicio del cómputo y el cese, si bien establece como excepción que quienes a la entrada en vigor de dicha Orden vinieran ocupando tales puestos podrían continuar ocupándolos, una vez superado dicho plazo, salvo que no superen las pruebas que establezca la resolución del Viceconsejero de Seguridad, acreditativas del mantenimiento de las condiciones de idoneidad necesarias para el desempeño del puesto de trabajo. La Orden de la Consejera de Seguridad de 11 de octubre de 2018, de modificación de la relación de puestos de trabajo de la Ertzaintza, extiende dicha excepción hasta la fecha de 1 de enero de 2018.

Tal modificación de la relación de puestos de trabajo deriva de los acuerdos alcanzados en la mesa sectorial de negociación, en cuyo acta se refleja igualmente el compromiso de regular antes del 1 de enero de 2019 *“el procedimiento de cese para el personal que, hallándose adscrito de forma definitiva y habiendo superado el plazo de máxima permanencia, así lo solicite, o que no supere las pruebas mencionadas, en desarrollo de lo establecido en el artículo 15.3 del Reglamento de Provisión. Se establecerá la posibilidad de que este personal pueda elegir destino en el que será adscrito de forma provisional en el centro de trabajo en que, existiendo vacante y*



cumpliendo las condiciones para su desempeño efectivo, determine el Departamento, de entre los tres propuestos por el/la ertzaina interesado."

Es preciso por consiguiente instrumentar tanto la forma del cese para los casos de no superación de las pruebas antedichas o de la renuncia voluntaria a los que se refiere el párrafo antecedente, así como en el caso general de cese por cumplimiento del plazo de máxima permanencia.

Atendiendo a lo antedicho, una vez negociada en la sesión de 11 de octubre de 2018 de la Mesa del artículo 103 de la Ley de Policía del País Vasco, en uso de las atribuciones que me confiere el Decreto 83/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Seguridad,

RESUELVO:

Primero.- Cese por cumplimiento del periodo de máxima permanencia.

1.- El cese del personal funcionario de la Ertzaintza por el cumplimiento del período de máxima permanencia se realizará atendiendo a lo dispuesto en los artículos 41.2.g), 70.2.f) y 71.2 de la Ley de Policía del País Vasco; los artículos 15, 16 y 24 y la disposición adicional séptima del Decreto de 22 de diciembre, por el que se aprueba el reglamento de provisión de puestos de trabajo de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco, así como conforme a las previsiones al efecto contenidas en la Orden de relación de puestos de la Ertzaintza y sus modificaciones.

2.- El procedimiento comenzará de oficio por la Dirección de Recursos Humanos, que notificará la resolución de incoación al menos con dos meses de anticipación a la fecha del cumplimiento del periodo de máxima permanencia.

En el caso del personal al que se refiere el artículo 4 de la Orden de la Consejera de Seguridad de 11 de octubre de 2018, de modificación de la relación de puestos de trabajo de la Ertzaintza, cuando el inicio del procedimiento de cese derive de la no superación de las pruebas establecidas por el Viceconsejero de Seguridad, la resolución de incoación se realizará una vez conocida la no superación de las referidas pruebas.

3.- En el caso de funcionarios o funcionarias que ocupen puestos de máxima permanencia en adscripción definitiva, la notificación de la resolución a la que se refiere el apartado anterior, concederá un plazo de 15 días hábiles para que las personas interesadas manifiesten sus preferencias respecto a su adscripción temporal tras el cese, proponiendo tres puestos de trabajo vacantes para los que cumplan los



requisitos exigidos para su desempeño. La Administración comunicará los puestos vacantes existentes.

La Administración, atendidas las necesidades de servicio, determinará el puesto y la fecha de efectos de la adscripción provisional siguiendo la mayor antigüedad en la categoría, o, en igualdad de condiciones, la mayor puntuación en el orden de prelación del proceso selectivo de ingreso en la categoría correspondiente.

Si la persona interesada no formulara propuesta en plazo o la presentada se refiriera a puestos no vacantes o para los que no cumplan los requisitos, la Administración resolverá sobre el cese y decidirá el puesto a que efectuar la adscripción provisional.

De no existir vacantes, se procederá a la asignación provisional de puesto vacante en unidades limítrofes a las propuestas por los interesados.

Dicha adscripción provisional mantendrá su vigencia hasta la resolución del primer concurso que se celebre, en el que la persona cesada tendrá obligación de tomar parte y dispondrá de derecho preferente para proveer, por una sola vez, las vacantes que se convoquen, siempre que reúna los requisitos exigidos para su desempeño.

4.- Las personas que ocupasen en comisión de servicios un puesto sujeto a máxima permanencia se reincorporarán a su puesto de trabajo mediante Resolución de la Dirección de Recursos Humanos en la fecha que en la misma se disponga.

5.- Las personas que ocupasen en adscripción provisional un puesto sujeto a máxima permanencia que deban cesar en el mismo por el cumplimiento de dicho plazo serán adscritas con este mismo carácter a puesto de trabajo vacante de su escala y categoría para el que cumpla los requisitos, en atención a las necesidades del servicio.

Segundo.- Aceptación de renuncia por el personal referido en el artículo 4 de la Orden de 11 de octubre de 2018, de modificación de la relación de puestos de trabajo.

1.- El personal funcionario al que se refiere el artículo 4 de la Orden de la Consejera de Seguridad de 11 de octubre de 2018, de modificación de la relación de puestos de trabajo de la Ertzaintza, que a fecha 1 de enero de 2018 estuvieran ocupando un puesto en adscripción definitiva y hubiera vencido el periodo de máxima permanencia y continuara ocupando dichos puestos, podrá optar por renunciar voluntariamente a la continuidad en el puesto, de conformidad y con las consecuencias previstas en este apartado.

2.- El ejercicio de esta opción se podrá ejercer entre el 1 de octubre y 15 de noviembre de cada año, siempre que hubiera convocado o resuelto para dicho ejercicio el correspondiente curso de especialización necesario para el desempeño del puesto sujeto a máxima permanencia y que queden cubiertas las necesidades del servicio.



En 2018 el plazo de presentación de estas solicitudes comenzará desde la fecha de publicación de la presente Resolución en Gurenet y terminará el 22 de noviembre de 2018.

3.- El ejercicio de la opción se realizará mediante presentación en plazo de escrito dirigido a la Dirección de Recursos Humanos, al cual acompañarán la manifestación de sus preferencias de adscripción temporal, proponiendo tres puestos de trabajo vacantes para los que cumplan los requisitos exigidos para su desempeño. La Administración comunicará los puestos vacantes existentes.

4.- La Administración aceptará la renuncia al puesto de conformidad con lo expresado en este apartado y adscribirá provisionalmente a quienes ejerciten esta opción, atendidas las necesidades de servicio, determinando el puesto de conformidad con las preferencias de los solicitantes siguiendo la mayor antigüedad en la categoría, o, en igualdad de condiciones, la mayor puntuación en el orden de prelación del proceso selectivo de ingreso en la categoría correspondiente.

Si la persona solicitante no formulara en plazo preferencias o las preferencias presentadas se refiriesen a puestos no vacantes o para los que no cumplan los requisitos, la Administración resolverá el puesto a que efectuar la adscripción provisional.

De no existir vacantes, se procederá a la asignación provisional de puesto vacante en unidades limítrofes a las propuestas por los interesados.

5.- En el caso de no ejercitarse expresamente la opción de renuncia voluntaria en el plazo previsto cada año, se entenderá que opta por la continuidad en el puesto y por la concurrencia a las pruebas que se convoquen mediante Resolución del Viceconsejero de Seguridad previstas en el artículo 8 de la Orden de la Consejera de Seguridad de 12 de marzo de 2015, de modificación de la relación de puestos de trabajo de la Ertzaintza.

Tercero.- Recursos.

Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, los interesados e interesadas podrán interponer recurso de alzada ante la Consejera de Seguridad, en el plazo de un mes desde su publicación en el portal Gurenet.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de octubre de 2018

Fdo.: Ana Agirre Zurutuza





VICECONSEJERA DE ADMINISTRACION Y SERVICIOS

**2018KO URRIAREN 22KO EBAZPENA, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDEARENA, GEHIENENKO IRAUNALDIA BETETZEARI LOTURIKO KARGUGABETZE ETA UKO EGITEEN PROZEDURAK ARAUTZEN DITUENA.**

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 70.2 f) artikulua araberan, lege horretako 41.2 g) artikuluan jasotako gehieneko iraunaldia betetzen denean, lanpostu horren atxikipenak bertan behera geratu behar du; hori da lanpostu-zerrenden zehaztapenetako bat, eta bete beharreko zereginen ezaugarri berezietan du oinarria.

Abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuak —zeinak Euskal Herriko Polizia Kidegoen lanpostuak betetzeari buruzko Araudia onesten baitu— 15, 16 eta 24. artikuluetan eta zazpigarren xedapen gehigarrian jasotzen ditu gehieneko iraunaldia betetzeagatik lanpostu bateko atxikipena bertan behera uzteak dituen ondorioak.

Gehieneko iraunaldia duten lanpostuak haiei buruzko aginduetan zehazten eta arautzen dira.

Hasiera batean Brigada Mugikorreko lanpostuetarako epe jakin bat ezarri zen arren, geroago indargabetu egin zen epe hori, proba batzuk gainditzearen mende geratu baitzen lanpostuan jarraitu ahal izatea, eta ez gehieneko iraunaldia betetzearen mende. Hala ere, Segurtasuneko sailburuaren 2015eko martxoaren 12ko Aginduaren bidez, berriro arautu zen lanpostuetarako gehieneko iraunaldia, eta epea zenbatzen hasteko unea eta kargugabetzea finkatu ziren; hala ere, salbuespen gisa ezarri zen Agindu hori indarrean sartzeko unean horrelako lanpostuak betetzen ari zirenek lanpostu horietan jarraitu ahal izango zutela, baldin eta Segurtasuneko sailburuordearen ebazpenak ezartzen dituen probak gainditzeko bazituzten; proba horien helburua da egiaztatzea langileek jarraitzen dutela lanpostu horiek betetzeko behar diren egokitasun-baldintzak betetzen. Segurtasuneko sailburuaren 2018ko urriaren 11ko Aginduak, zeinak Ertzaintzako lanpostu-zerrenda aldatzen baitu, salbuespen hori 2018ko urtarrilaren 1era arte hedatzen du.

Sektoreko negoziazio-mahai hartutako erabakietan du oinarria lanpostu-zerrendaren aldaketa horrek, mahai horren aktan ere jasota baitago 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen honako hau arautzeko konpromisoa: *“lanpostuari uko egiteko prozedura arautzea, behin betiko atxikipena izanik, gehieneko iraunaldia gainditu duten eta hala eskatzen duten langileentzat, edo aipaturiko probak gainditzeko ez dituztenentzat, Lanpostuak Betetzeko Araudiak 15.3 artikuluan ezartzen duenari jarraituz. Langileek aukera izango dute behin-behineko atxikipenez betetzeko hiru lanpostu proposatzeko, eta Sailak hiru horietatik bat esleitzeko die; lanpostu horiek hutsik egon behar dute eta ertzainek lanpostu horiek benetan betetzeko baldintzak bete behar dituzte.”*



Beraz, aipaturiko probak gainditzen ez dituzten kasuetarako lanpostutik kentzeko modua arautu behar da, bai eta aurreko paragrafoan aipaturiko borondatezko ukoegiteen kasuetarako ere, edo gehieneko iraunaldia bete delako lanpostua utzi behar den kasu orokorretarako.

Horrenbestez, behin Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 103. artikuluko Mahaiaren 2018ko urriaren 11ko bileran deialdia negoziatu ondoren, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 83/2017 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Gehieneko iraunaldia betetzeagatik lanpostutik kentzea.

1.- Ertzaintzako funtzionarioak gehieneko iraunaldia bete dutelako lanpostutik kentzeko, haiek hartuko dira kontuan: Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 41.2.g), 70.2.f) eta 71.2 artikulua; Euskal Herriko Polizia Kidegoetako Funtzionarioen Lanpostuak Betetzeari buruzko Araudia onesten duen abenduaren 22ko Dekretuaren 15., 16. eta 24. artikulua eta zazpi xedapen gehigarria; eta, azkenik, Ertzaintzaren lanpostu-zerrendari buruzko Aginduan eta hari egindako aldaketetan gai honen inguruan jasotako aurreikuspenak.

2.- Prozedura ofizios hasiko du Giza Baliabideen Zuzendaritzak, eta gehieneko iraunaldia betetzen den eguna baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinaraziko du prozedura hasteko ebazpena.

Ertzaintzako lanpostu-zerrenda aldatzen duen Segurtasuneko sailburuaren 2018ko urriaren 11ko Aginduak 4. artikuluan aipatzen dituen langileei dagokienez, Segurtasuneko sailburuordeak ezarritako probak ez gainditzearen ondorioz hasi behar denean langile horiek lanpostutik kentzeko prozedura, proba horiek gainditu ez dituztela jakin ondoren emango da prozedura hasteko ebazpena.

3.- Gehieneko iraunaldia duten lanpostuak behin betiko atxikipenez betetzen ari diren funtzionarioei dagokienez, aurreko paragrafoan aipaturiko ebazpena jakinarazi ondoren 15 egun balioduneko epea emango da interesdunek lanpostua utzi ondoren behin-behinean betetzeko zer lanpostu hobesten dituzten adieraz dezaten; horretarako, hutsik dauden hiru lanpostu proposatuko dituzte, eta nahitaezkoa izango da interesdunek lanpostu horietarako eskakizunak betetzea. Administrazioak hutsik dauden lanpostuen berri emango die.

Administrazioak, zerbitzuaren premien arabera, lanpostua eta behin-behineko atxikipena indarrean jarriko den data finkatuko ditu; horretarako, kategoria horretako antzintasun handiena hartuko du kontuan, eta, baldintza berdinetan, dagokion



kategorian sartzeko hautaketa-prozesuko lehentasun-ordenan puntu gehien nork dituen.

Interesdunak epe barruan proposamenik egiten ez badu, edo proposatutako lanpostuak hutsik ez badaude edo interesdunak lanpostu horien eskakizunak betetzen ez baditu, Administrazioak ebatziko du lanpostutik kentzeari buruz, eta erabakiko du interesdunari zer lanpostu esleituko zaion behin-behineko atxikipenez.

Lanpostu hutsik ez badago, interesdunek proposaturiko unitateen mugakide direnetako batean esleituko da behin-behineko lanpostua.

Behin-behineko atxikipen hori indarrean egongo da, harik eta egiten den lehen lehiaketa ebazten den arte; interesdunak nahitaez hartu beharko du parte lehiaketa horretan, eta lehentasuna izango du deitzen diren lanpostu hutsak betetzeko, behin bakarrik, eta betiere lanpostu horietarako eskakizunak betetzen baditu.

4.- Gehieneko iraunaldia duen lanpostu bat zerbitzu-eginkizunetan betetzen ari diren pertsonak beren lanpostura itzuliko dira, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ebazpen bidez, eta ebazpen horretan finkatzen den datan.

5.- Gehieneko iraunaldia duen lanpostu bat behin-behineko atxikipenez betetzen ari diren pertsonak iraunaldi hori bete dutelako lanpostua utzi behar badute, behin-behinean atxikiko dira beren eskalan eta kategorian hutsik dagoen lanpostu batera, betiere lanpostu horretarako eskakizunak betetzen badituzte, eta zerbitzuaren premien arabera.

Bigarrena.- Onartzea lanpostu-zerrenda aldatzen duen 2018ko urriaren 11ko Aginduaren 4. artikuluan jasotako langileen uko-egitea.

1.- Ertzaintzako lanpostu-zerrenda aldatzen duen Segurtasuneko sailburuaren 2018ko urriaren 11ko Aginduaren 4. artikuluan jasotako funtzionarioak lanpostu bat behin-behineko atxikipenez betetzen ari badira eta, gehieneko iraunaldia bete duten arren, lanpostu horietan jarraitzen badute, beren borondatez egin ahal izango diote uko lanpostuan jarraitzeari, atal honetan jasotakoaren arabera eta bertan jasotako ondorioekin.

2.- Aukera hori urte bakoitzeko urriaren 1etik azaroaren 15era bitartean gauzatu ahal izango da, betiere gehieneko iraunaldia duen lanposturako beharrezkoa den espezializazio-ikastaroa deitu edo ebatzi bada ekitaldi horretarako, eta zerbitzuaren premiak aseta geratzen badira.

2018an, ebazpen hau Gureneten argitaratzen den egunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2018ko azaroaren 22an amaituko.

3.- Aukera hori gauzatzeko, idatzi bat epe barruan aurkeztu beharko da Giza Baliabideen Zuzendaritzan, eta harekin batera hutsik dauden hiru lanpostu



proposatuko dira; nahitaezkoa izango da interesdunek lanpostu horietarako eskakizunak betetzea. Administrazioak hutsik dauden lanpostuen berri emango du.

4.- Administrazioak onartuko du lanpostuari uko egitea, atal honetan adierazitakoarekin bat etorritz, eta behin-behinean lanpostu batera atxikiko ditu aukera hori gauzatzen duten langileak, zerbitzuaren premiak, haien hobespenak eta kategoria horretako antzinatean handiena aintzat hartuz; eta, baldintza berdinetan, kontuan hartuko da nork dituen puntu gehien dagokion kategorian sartzeko hautaketa-prozesuko lehenetsun-ordenan.

Eskatzaileak epe barruan hobespenik adierazten ez badu, edo hobetsitako lanpostuak hutsik ez badaude edo eskatzaileak lanpostu horietarako eskakizunak betetzen ez baditu, Administrazioak ebatziko du eskatzaileari zer lanpostu esleituko zaion behin-behineko atxikipenez.


Lanpostu hutsik ez badago, interesdunek proposaturiko unitateen mugakide direnetako batean esleituko da behin-behineko lanpostua.

5.- Urte bakoitzean aurreikusitako epearen barruan ez bada berariaz gauzatzen lanpostuari borondatez uko egiteko aukera, ulertuko da interesdunak lanpostu horretan jarraitu nahi duela, eta Segurtasuneko sailburuordearen ebazpen bidez deitzen diren probetan parte hartu nahi duela; proba horiek Ertzaintzako lanpostu-zerrenda aldatzen duen Segurtasuneko sailburuaren 2015eko martxoaren 12ko Aginduaren 8. artikuluan daude jasota.

Hirugarrena.- Baliabideak.

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea, eta gora jotzeko errekurtoa jar dezakete interesdunek Segurtasuneko sailburuaren aurrean, hilabete bateko epean, ebazpena Gurenet atarian argitaratzen denetik.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko urriaren 22an



Sin.: Ana Agirre Zurutuza
ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDEA
 SEGURTASUN SAIA
 Administrazio eta Zerbitzuen
 DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
 Viceconsejería de Administración
 y Servicios